

PRENTSA OHARRA: 2026.07.01

Focus Basque programak euskal arte eszenikoak Cratère Surfaces jaialdiaren erdigunera eramango ditu

- Zazpi euskal konpainiak hartuko dute parte Frantziako erreferentziatzko jaialdi honetan
- Etxepare Euskal Institutuak, Eusko Jaurlaritzak eta Artekalek jarduera profesionalak bideratu dituzte euskal arte eszenikoen nazioartekotzea eta saretzea sustatzeko

Donostia, 2026ko uztailaren 1a-. Frantziako Alès hirian egingo da uztailaren 2tik 4ra Cratère Surfaces nazioarteko kaleko arteen jaialdiaren 27. edizioa. Aurten, lehen aldiz, Euskal Herria izango da jaialdiko ohorezko gonbidatua, eta, horren harira, Focus Basque programa antolatu dute Etxepare Euskal Institutuak, Eusko Jaurlaritzak, Artekalek eta Cratère Surfaces jaialdiak lankidetzan. Egitasmo horren bidez, euskal arte eszenikoek Europako kaleko arteen erreferentziatzko hitzordu honetan ikusgarritasun berezia izango dute.

Le Cratère – Scène nationale d'Alès arte eszenikoen alorreko erakunde esanguratsua da. Urte osoan zehar diziplina anitzeko programazioa sustatzen du, eta antolatzen dituen jaialdien artean dago Cratère Surfaces, kaleko arteei eskainitako nazioarteko hitzordua. Urtero, 23.000 ikusle inguru eta nazioarteko ehunka profesional erakartzen ditu Alès-era, eta hiru egunez, hiriko kaleak eta espazio publikoak agertoki bihurtzen dira Europako azken sorkuntza eszenikoak hartzeko. Aurtengo programazio ofizialean 18 ikuskizun izango dira; horietatik zortzi Focus Basque izeneko programazio bereziaren baitan egongo diren euskal konpainien lanak.

Deialdi publiko bidez hautatutako zazpi euskal konpainia izango dira Focus Basque-eko protagonista: **Rouge Elea** (*Lurruna*), **Bilaka Kolektiboa** (*Dirau* eta *Bilabal*),

Harrobi Dantza Bertikala (*Geure(r)a*), **Deabru Beltzak** (*Su Talka*), **Osa+Mujika** (*Tupper*), **Led Silhouette** (*Los Perros*) eta **Markeliñe** (*Andante*).

Gainera, Focus Basque egitasmoak jarduera bereziak ere bilduko ditu. Bilaka Kolektiboak euskal dantza ezagutzeko tailerrak eskainiko ditu uztailaren 2an eta 4an, eta azken egun horretan dantzaldia egingo da jaialdiko publiko guztiari irekita.

Cratère Surfaces jaialdiaren irekiera instituzionala uztailaren 2an egingo da Alèseko udaletxean, eta harrera horretan hartuko dute parte, hiriko auzapeza eta eskualdeko hautetsiekin batera, Imanol Otaegi Etxepare Euskal Institutuko Kultura zuzendariak eta Jon Koldo Vazquez, Artekaleko nazioarteko harremanen arduradunak.

Cratère Surfaces jaialdiko euskal parte hartzea Etxepare Euskal Institutuaren **Ça colle au basque** egitasmoaren baitan kokatzen da, Frankofoniaren eremuan euskara eta euskal kultura sustatzea helburu duena programa.

Nazioartekotzea, saretzea eta proiektu artistikoen aurkezpena

Programazio artistikoaz harago, Etxepare Euskal Institutuak, Eusko Jaurlaritzak eta Artekalek lankidetzan estuan antolatuko dute jaialdiaren jarduera profesionaletako euskal parte-hartzea, **Basque. Performing Arts.** nazioartekotze markaren atarkepean. Erakunde publikoen eta sektorearen arteko koordinazio eremu honek euskal arte eszenikoetako sortzaile eta konpainiak nazioarteko zirkuituekin konektatzea, programatzaileekin loturak sendotzea eta lankidetzan aukera berriak sustatzea du xede.

Jarduera profesional horien artean dago Outdoor Lab, nazioarteko ibilbidean hastapenetan dauden kaleko arteetako sortzaileei zuzendutako formakuntza eta nazioartekotze programa. Deialdi ireki baten bidez hautatutako lau euskal proiektu hartuko dute parte bertan: **Pisizifaktoria**, **DAB Dantza Taldea**, **Komerobi Produkzioak** eta **Dance&Music Creation**. Uztailaren 1etik 4ra bitarte, prestakuntza-saio eta topaketa profesionaletan parte hartzearekin batera, beren proiektuak aurkeztuko dizkiete nazioarteko programatzaileei.

Era berean, programazio ofizialean parte hartzen duten bost euskal konpainia — Deabru Beltzak, Osa+Mujika, Led Silhouette, Harrobi Dantza Bertikala eta Markeliñe—

uztailaren 3an egingo den *pitching* saioan izango dira, etorkizuneko sorkuntza proiektuak nazioarteko programatzaileei aurkezteko.

Jarduera profesionalen egitaraua osatzeko, uztailaren 4an euskal produktuekin osatutako networking-koktel bat egingo da. Topaketaren helburua izango da sortzaileen, programatzaileen eta arte eszenikoetako profesionalen arteko harremanak sendotzea eta nazioarteko lankidetzak berriak sustatzea.

Cratère Surfaces jaialdiko euskal fokoa azken urteotan Etxepare Euskal Institutuak, Eusko Jaurlaritzak eta Artekalek euskal kaleko arteen nazioartekotzea sustatzeko garatutako estrategiaren emaitza da. Lankidetzak horren bidez, euskal konpainien presentzia sendotu da Europa mailako azoka eta jaialdi nagusietan.

Etxepare Euskal Institutua

Etxepare Euskal Institutua Eusko Jaurlaritzaren erakunde publikoa da. Euskara eta euskal kultura eta sorkuntza nazioartean proiektatzeko, eta horien bidez beste eskualde, herrialde eta kultura batzuekin harreman iraunkorrak eraikitzeke egiten du lan. Horretarako, kalitatezko jarduera artistikoak sustatzen ditu, eta kulturaren alorreko sortzaile, artista eta profesionalen mugikortasuna bultzatzen du. Euskal ikasketak ere bultzatzen ditu eremu akademikoan. Era berean, nazioarteko eragileekin lankidetzak sustatzen du, bai kulturaren arloan, bai esparru akademikoan.

Info +

Komunikazio saila
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera | Andre Zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus